

HITZ BITAN**NBA****Jordanek bosgarren garaipena erdietsi du erreskadan Wizardsekin**

Richard Hamiltonen ezinbesteko laguntzarekin ilaran lorturiko bosgarren jarraipenera bideratu zuen Jordanek Wizards taldea. Hamiltonek 34 puntu lortu zituen eta Jordanek 19. Bestetik, Lakersek mendean hartu zuen Clippers auzoa (110-80). Beste emaitzak: Philadelphia-Milwaukee 80-96. Boston-Chicago 107-101. Miami-New Jersey 86-95. Minnesota-Sacramento 114-94. Phoenix-San Antonio 93-105. Utah-Portland 93-85.

ESKIA**Eberharter austriarra gailendu da Val Gardenako jaitsieran**


Stepan Eberharter austriarrak eskuratu zuen atzo garaipena Italiako Val Gardena eski estazioan jokaturiko jaitsiera proba. Walchhofer herrikidea izan zen bigarren eta Aamodt norvegiarra hirugarren. Horrenbestez, Eberharter lider da Munduko Txapelketako Jaitsiera proban, baita sailkapen nagusian ere. Emakumezkoetan, Hilde Gerg alemaniarra nagusitu zen Val-D'Isereko Super-erraldoian, Goetschl eta Schneiderren aurretik.

FUTBOLA**'Premier League'-ko 10.000. gola sartu du Les Ferdinandek**

Tottenham taldeko Les Ferdinand aurrelariak Ingalaterrako *Premier League*-ko historiako 10.000. gola sartu zuen atzo. Ingalaterrako lehen mailak 1992an hartu zuen izen hori, eta orduz geroztik zortzi jokalarik sartu dituzte 100 goletik gora: Shearer (186), Cole (136), Ferdinand (126), Fowler (120), Wright (113), Sheringham 9112), Yorke (108) eta Le Tissier (101).

IGERIKETA**Mankocek 110 metro estiloetako munduko marka ondu du**

Europako Txapelketetako 100 metro estiloetako finalerdietan ondu zuen Mankoc esloveniarrak espezialitate horretako munduko errekorra. 52 segundo eta 63 ehuneneko beharizan zituen lasterketa egiteko eta 16 ehunenekotan hobetu zuen Neil Walker estatubatuarren aurreko errekorra.



MARCEL GILLIERON / EPA

Torronterasek kolokan jarri ditu fisikaren legeak Suitzako proba batean

Abila da Edgar Torronteras superkrosleri kataluniarra motorraren fisikaren zenbait lege kolokan jarri eta jauzi ikusgarri bezain sinestezinak egiten. Ez da kasualitatea espezialitate horretako jauzi

gehienak berak asmatu eta izendatu izana. Duela pare bat aste Donostiako super-kros jaialdian ikusi ahal izan genuen, eta goiko irudian herenegun Genevan (Suitza) egindako jauzi bat ageri da.

ATLETISMOA. Sei kale, luzera eta altuera jauzirako gunek eta hainbat areto ditu eraikinakErredakzioa | **GASTEIZ**

Aste gutxi batzuk baino ez dira igaro Martin Fizek atleta profesional gisa egindako ibilbide luze eta oparoari adio esan zionetik. Omenaldi eta gorazarreen garaia heldu zaio orain. Adibidez, atzo inauguratu zuten Gasteizen maratoilari ohi handiaren izena eramango duen atletismoko pista estalia. Mendizorrotza futbol-zelaiko tribuna nagusiaren azpialdean kokaturik dago pista berria. Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakaria, Alfonso Alonso Gasteizko alkatea eta Martin Fiz bera izan ziren aurkezpen ekitaldian.

Pista estaliak *mondo* izeneko material sintetikoaz egindako sei kale ditu, lehiaketa ofizialetan 60 metro lau nahiz hesidunak korritzeko baliagarriak. Sei kale horietatik bostek 110 metro dituzte eta seigarrenak 120 metro entrenamendu saioetarako. Horrez gain, 16 metro daude helmuga marratik hormara, atletek frenatzeko aukera izan dezaten. Orotara, paretatik paretara 145 metro ditu pistak.

Korritzeko kaleez landa, luzera jauzirako eta jauzi hirukoitzetarako bi gunek ditu eraikinak. Altuera jauzia egiteko gunek bat ere badu, eta pisu jaurtiketa egiteko gunea eraikitzeko espazioa ere badu, oraindik egiteke

Martin Fizen izena daraman atletismoko pista estalia zabaldu dute Mendizorrotzan**KALEAK**

Mondo izeneko material sintetikoaz egindako sei kale ditu, lehiaketa ofizialetan korritzeko baliagarriak

GASTUAK

Eusko Jaurlaritzak, Arabako Diputazioak eta Gasteizko Udalak ordaindu dituzte, hirurek diru kopuru bera jarrita

dagoen arren. Azkenik, atletei kontrol eta proba medikoak egiteko zenbait gela eta Soin Hezkuntzako Euskal Erakundeko ikasleentzat (SHEE) areto gela handi bat ere eraiki dituzte.

Eusko Jaurlaritzak, Arabako Diputazioak eta Gasteizko Udalak ordaindu dituzte gastuak, hiru erakundeek diru kopuru berbera jarritz.



THOR CASTRO / EFE

Martin Fiz, bere izena daraman atletismo pistan, atzo goizean.